


ATAUN Turismoa




8. JENTILAK: 2. ETAPA

ALTUERA MIN.:	205 m.
ALTUERA MAX.:	974 m.
DESNIBELA:	▼ 1003 m. ▲ 566 m.
DISTANTZIA:	20,67 km.
DENBORA:	5 ordu.
ZAILTASUNA:	ertaina



8. JENTILAK: 2. ETAPA

➤ LIZARRUSTI ~ IRAIKO LEPOA ~ LAREOKO URTEGIA ~ AGAUTZ GAINA ~ ALDATSEKO ITURRIA ~ INTSUSTIKO ITURRIA ~ KOBÆGI BASERRIA ~ SAN MARTINGO PLAZA



Aparkalekua	Hesia/Langa	Iturria	Pasabidea	Saroia	Atsedenekua	Amaiera
Hasiara puntua	Bidegurutzea	Basoa	Eskailerak	Gailurra	Baserrria	

TOPOGIDA

P. Aparkalekua. Lizarrustiko gainean, Lizarrusti Parketxearen alboko aparkalekuan utziko dugu autoa. Ibilbidea ere bertan hasteko

1. **Hasiera-puntua.** Lizarrusti parketxea ezkerrean dugula gora bidea egingo dugu.
2. **Egur-hesia.** Hau igaro eta eskuinera hesiaren ondotik egingo dugu, berehala GR 12 eta 121aren arrastoekin bat egin eta lizarren lerroa jarraituz aurrera egiteko.
3. **Saroiondo.** Gainera aterata parean dugun pagadian barneratuko gara aurrera eginez.
4. **Iraio.** Iraioko lepoan ezkerrean behera egiten duen pista hartuko dugu GR arrastoak alde batera utziz.
5. **Akaitzerreka.** Ezkerrean eginez erreka ondotik aurrera egingo dugu.
6. **Ezkerrean.** Pago handia parean dugula ezkerrean hartuko dugu pista, lruerreketa eskuinean utziz.
7. **Eskuinera.** Eskuinetik aurrera egiten duen pista jarraituko dugu ezkerrean Lareoko urtegia dugula.
8. **Lareo.** Lareoko urtegiari bizkarra emanez pagadian barneratuko gara Sarastarrirako seinalezapena jarraituz. Arrasto zuriak, gorriak eta tarteka berdeak ere izango dira bidean. Pagadian gora eginez goazela, eskuin aldean utziko dugu **ere Sarastarrirako koba.**
9. **Sarastarri.** Gainean Sarastarri gailurra dugula, pareko Elorretako sarroira inguratuko gara zeharka, gainez gain doan GRa hartzeko.
10. **Elorretako sarroia.** Hau ezkerrean utziz aurrera jarraituko dugu gainez gain.
11. **Agautz.** 973 m-tan, artzaintza gune ezagunean gaude. Bertatik ikusten dira domoaren iparraldeko paretak, Aralarko goi-larreak, ... Ikusmira paregabeaz gozatu ondoren GR arrastoak jarraituko ditugu.
12. **Agauzko harratea.** Hemen eskuinera eginez domoaren barnealdean sartuko gara pagadian behera eginez.
13. **Aldatseko iturria.** Aska honetatik aurrera jarraituz pistara atera eta eskuin aldera jarraituko dugu.
14. **Behera.** Aurrez aurre ditugun bi pistetatik ezkerrean behera egiten duena hartuko dugu aurrera egiteko.
15. **Eskuinera.** Eskuinera egiten duen bidea jarraituko dugu oraingoan.
16. **Ezkerrean.** Ezkerrean aurrera egiten duen bidetik egingo dugu aurrera.
17. **Aurrera.** Aurrez aurre dugun bidetik jarraituko dugu.
18. **Ezkerrean.** Ezkerrean behera egiten duenetik ekingo diogu bideari.
19. **Martinsaroko lepoa.** Hemen pista nagusira aterako gara, ezkerrean eginez. Eskuinera hartuz gero Eniriora gerturatuko ginatke.
20. **Ezkerrean.** Pista nagusia utzi eta ezkerreko bidea jarraituko dugu, laburragoa eta zuzenagoa baita.
21. **Intsustiko iturria.** Pinuen itzalean atsedean hartu ondoren aurrera jarraituko dugu.
22. **Aralegiko zelaia.** Hemen langaren eskuinean doan bidea jarraituko dugu Atxuripetik igaroz. Bidean zehar harrion garai bateko gurdien arrastoak sumatuko ditugu.
23. **Kobaegi.** Eskuinean Kobaegi baserria utzita, ezkerrean egiten duen pista jarraituko dugu aldapan behera eginez.
24. **Errekarateko iturria.** Ataun, Lazkao eta Zaldibia artean kokatzen den iturri honetan Lazkao Txikik idatzitako bertsoa dago ur-freskoaren egarri datorrenaren zain. Ura edanda aurrera jarraituko dugu pista berean.
25. **Lasarteko lepoa.** 1876an Intzartzuko bordaren sabaia gainera etorrita hil ziren bi anaien gogoangarri den harrizko hilarria dagoen honetan, eskuinean aurrera jarraitzen duen pistan egingo dugu aurrera.
26. **Amundarain.** Ezkerrean eginez Amundarain baserriaren ataritik igaro eta bertan ezkerrean bidea hartuko dugu GR arrastoak jarraituz eta errepidea utziz.
27. **Ezkerrean.** Aurrean ikusten den errepidera aterako gara ezkerrean behera jarraituz.
28. **Mendiola.** Hainbat etxe igaro ondoren, bihurtunean errepidea utzi eta Mendiola gainaren ondotik hilerri aldera jaitsiko gara.
29. **Eskailerak.** Hilerriaren atarian dauden eskaileretatik egingo dugu herri-gunera bidea.
30. **Paskualiturri.** Hemen errepide nagusira irtenez eskuinera egingo dugu plazara heltzeko.
31. **Amaiera-puntua.** San Martingo plazan emango diogu amaiera ibilbideari, bertan eliza eta udaletxea ditugularik ikusgai.

GUNE INTERESGARRIAK

1. LIZARRUSTI PARKETXEA

XVII. mendearen bigarren erditik aurrera eraikia, baserriak bizitzen jarraitzen dute bertakoek, eta beraz baserriko egunerokotasunean murgiltzen ditu bezeroak giro honek. Zortzi laguntzako tokia eskaintzen du nekazalturismo honek, sukaldean sartzeko eskubide eta guzti. Tfnoa: 943 18 03 66.

2. LAREOKO URTEGIA

Lareoko urtegia Malkorburu, Sarastarri, Akaitz eta Alleko mendiek inguratutako parajea, 1989an eraiki zen Agauntza ibaiaren emari ekologikoa eta ataundarren ur hornidura bermatzeko, 20 ha-ko azalera eta 2,35 hm³-ko bolumena dituelarik.

3. SARASTARRIKO KOBA

Bere baitan osin eder bat (25 x 10 x 3 m) gordetzen duen kobazuloa. Esaunden arabera, dama eder bat agertzen omen da tarteka atarian.

4. INTSUSTIKO ITURRIA

Aralarko sarreran kokatzen den atsedeneku itzaltsua, bere mahai, eserleku eta ur freskodun iturria dituena. Atsedean hartzeko ala egun pasa lasaia egiteko leku aproposa.

